AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

86

EBAZPENA, 2012ko abenduaren 14koa, Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearena, M.ª Jesus Lopez de Aguileta Salazar andreak Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko-Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkari izateari utz diezaiola xedatzen duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, eta lege horrek ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– M.ª Jesus Lopez de Aguileta Salazar andreak, Herrizaingo, Justizia eta Herri Admistrazio Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko-Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkari izateari utz diezaiola, egindako lanagatik eskerrak emanez. Lanpostua: 520010 kodea, 176 dotazioa.

Bigarrena.– Kargu-uzte honek 2012ko abenduaren 17tik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Herrizaingoko sailburuaren aurrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abenduaren 14a.

Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordea,
NÉLIDA SANTOS DÍAZ.